



EGP

2017ko maiatza - 16. zenbakia

Goizuetako
aldizkaria



Goizuetaren mugan XIV. mendeko altxorra

Iberoko dorrea
berreskuratzeko bidean



zenbaki honetan



aurkibidea

- **Argitaratzailea:** Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren Euskara Zerbitzua
- **Kolaborazioa:** Fernando Anbustegi
- **Diseinua:** Allende Arnaiz
- **Maketazioa:** astidiseinua.com

LG NA 742-2016



- **3**..... Aurkezpena
- **4-7**..... Iberoko dorrea
- **8-11**..... Bidaia: La Plata (Argentina)
- **12**..... Atzera begira: 1916
- **13-16**..... Goizuetako iruditan
- **17**..... Goizuetako lehiaketa berria
- **18-20**..... Azaro kulturala
- **21**..... Nola ikusten dugu Goizuetako kultura?
- **22-23**..... Goizuetan erabakitzen goaz!
- **24**..... Ezetz asmatu
- **25**..... Bertso txokoa: Lexoti
- **26**..... Ipuin erotikoa
- **27**..... Inkesta
- **28**..... Zure txanda



Goizuetaren mugan XIV. mendeko altxorra

Iberoko dorrea berreskuratzeko bidean

XAPOren XVI. alea duzu eskuartean. Iritsi da goizuetarrek herritarrentzat egindako aldizkariak gozatzeko unea.

Beti bezala gai interesgarriak jasozten ditu XAPOk, batzuk irudiz eta kolorez jantziak, besteak historia handikoak, Iberori buruzko erreportajea esaterako. Erdi Aroko burdinola garrantzitsua dugu herriko mugan, balore handiko eraikin multzoa, Karlos II.a erregearen garaikoa. Urteen joanarekin hondatzen eta erortzen ari da ordea, batez ere, Iberoko dorrea. Altxor historiko eta kultural hau erabat galdu aurretik konponbidea jartzeko eskaera egin zuten Goizuetako eta Leitzako Udalek, eta eskaera horri erantzunez dorrea konpontzeko diru-laguntza emanen duela jakinarazi du Nafarroa-

ko Gobernuak. Iberori erreparatuko diogu XAPOko lehenbiziko orrialdeetan, zer izan den gogoratuz.

Aurten Gure Esku Dago ekimenak urte esanguratsua du berriz ere. Erabakitzeke eskubidea aldarrikatuz herri galdeketa egingen da Goizuetan, beste hainbat udalerrietan bezalaxe. Ekimen honen baitan Goizuetan antolatutakoa laburbiltzen duen artikulua ere irakurriko duzue aldizkari honetan.

Irudi ederrez osatutako tartea eskainiko digu Unai Samsók. Argazki kamera hartuta ibiltzen da maiz Goizuetako parajeak eta ospakizunak iruditant jasotzen. Bere bildumatik erretrato sorta bat aukeratzeko eskatu diogu, eta hona ekarri ditugu Goizueta Iru-dietan atalerako.

Munduan barrena dabilzan herri-

tarrak ere zertan dabilzan jakin nahi izaten dugu, eta oraingoan Aimar Zugarramurdirengana jo dugu, Argentinara. Bizi den ingurua erakutsiko digu argazkiz osatutako kontakizunean.

Guzti hauez gain, izanen da bestelako konturik ale honetan ere: azkeneko azaro kulturalari buruzko bilduma egingen dugu; Goizuetan joan den urtean zenbat ekitaldi antolatu ziren gogoratuko dugu; bertso txokoa ere osatu dugu Lexoti bertsolariaren inguruan; herritarrei beraien txoko kuttuna zein den galdetu diegu; jakin dugu baseritik herrira edo herritik baserira bizitzera joandako bi herritarren arrazoiak; eta beste hainbat kontu.

Dena goizuetarrek goizuetarrengan pentsatuz egin.

Ea gustuko duzen!



Iberoko dorrea

Iberoko dorreari buruzko erreportajea prestatu du Joxe Jabier Etxeberriak, aurtan jakin dugun albiste on baten aitzakian. Izan ere, Iberoko dorrea konpontzeko 450.000€ko inbertsioa eginen duela jakinarazi du Nafarroako Gobernuak 2017an. Berri ona da, zalantzarik gabe, Iberoko ondare historikoa berreskuratzen eta zaintzen lagunduko duelako. Iberoko burdinola Erdi Aroko industriagune bakanetakoa da, berebiziko garrantzia duen erakin multzoa: babes dorre bat eta baserri bat, zubi gotiko baten ondoan. Goizuetako zein Leitzako Udalako ordezkariak, Iñaki Sagredo arkeologoarekin batera, auzolanean egin duten lana kontuan hartzekoa da, horren ondorioz lortu baita, hein handi batean, dorrea konpontzeko finantziazioa.

Ibero zer izan den gogoratuz honako erreportajea idatzi du Joxe Jabierrek XAPOrako.

Ibero Goizuetatik gertu, Urumea ibaiaren bazterrean, Leitzako lurretan dago. Paraje ederra, aspalditik bere eskutik utzia, huntza eta paret zaharrak dira garaile.

Idatzi honetan, bereiziki, Iberoko dorrearen kontu batzuk azaldu nahi ditut. Nabari nabaria ikusten da dorrea burdinola eta baserriaren artean. Harrizko paret karratu handiekin, lau isuriko teilatua zeukan. Paret senda etaitsu hauek, bertan bizitzeko erosotasuna baino gehiago, egun batzuetarako babes eskaintzen zuten gerra eta gaizkileen garaietan. Familia indartsuen jatorri noblearen ziurtagiri ere izan ziren dorre hauek. Iberoko nagusien artean bertako familia eta etxe nagusiak Aldunzin, Minondo, Gaztealopez, Gokoetxea, Juanmartitzenea, Peritzenea, Hugarte, Hualde, Erkazti, Erviti... ezkontza bitartez kanpo-

ko beste olajaun leinu sonatuekin nahastu ziren: Larreta, Bertiz, Aranguren, Azelain, Areizaga... eta famili hauek mantendu zuten burdinolen jabetza mendeetan.

Iberoko burdinolaren lehen aipamena

Oletako teknologia hidraulikoaren lehenengo aipamena Euskal Herrian 1290. urtekoa da. Produkzio txikiko mendiko haizeolen ordezkorrek bazterretan Artikutza, Elama, Olatxo, Olaberri, Alkaso, Urdiñola, Donbardola, Asura, Zumarrezta... moduko olak eraiki ziren. Kanalizatzeko errazak eta Erreka Haundiko uholdetatik babestuak. Ibero, berriz, erreka handiaren bazterrean 1340. urtean azaltzen da lehenengo aldiz idatzi batean *"Martinez de Goyzueta fue personalmente a la ferrería de Ybero donde vive y mora Martinez de Ybero"*.

Ola hauen produkzioa handitzeko beste aurrerapen izugarria izan ziren hauspo mekanikoak eta haizea injektatzeko sistemak. Nafarroan, Urrobin, 1362. urtean lehenengo aldiz aipatzen dira hauspo hauek. Gipuzkoako ordenantzak 1397. urtean heriotza-zigorra agintzen zuen hauspoak txikitu edo hondatzen zituenarentzat. Pentsa zenbat balio zuten oletako teknologia hauek, kanal, presa,azienda, langile espezializatuak eta lortzen zen burdinak. Ez da harrizkoa bada dorre honen beharra. Karlos II erregetzaren garaian (1349-1387) eraiki zuten burdinola babesteko.

Antzeko dorre eta jauregiak

Iberoko dorrearen antzeko gaztelu itxurarekin irauten dutenak gutxi dira. Oñatin bada beste dorretxe bat Iberoko honen antza handia daukana. Donamariakoa izango litzateke beste bat ongi kontserbatua. Nafarroako konkistaren ondoren botarazi zituzten asko, besteak erori egin ziren edo jauregi eta etxe berriak egiteko aprobetxatu zituzten. Goizuetako inguruan aipa genezake dorre izandako Alduntzin eta Zibola etxeak, bat jauregi eta bestea etxebizitza bezala mantendu direnak. Goizuetako Elizako dorrea ere defentsarako erabilia izan zen XIV. mendean Nafarroako gerra zibilean eta XIX.ean karlisten gerra garaian. Era berean, aipatu behar ditut oraindik mantentzen diren XVII eta XVIII mende-





ko beste burdinoletako nagusien etxe handi eta erosoagoak, Goizuetako: Adrine, Goikoetxe, Martitxene, Juanmartitzenea; Artikutzako Olajaundegi, Asurako jauregia (Erasungo palazioa) eta Arranbide

Gerra eta garai latzen lekuko

Ibero XIV. mendean azaltzen da. Krisi garai ikaragarriak izan ziren XIV eta XV. mendeak. Populazioa %60- %40ra jaitsi zen, gerra amaiezinak, izurrite ikaragarriak eta klima aldaketa hotzak eraginda. Nafarroa, inguruko erreinuen arteko istiluen eta interesen erdi-erdian zegoen. Gaztelak, Aragoak, eta Ingalaterrak (Baionako lurraldea menderatzen zuen) Nafarroa bereganatu nahi zuten. Ekaitza politiko horretan murgilduta Nafarroa bera ere saiatu zen Gaztelak aurretik kendutako Gipuzkoako eta Arabako lurraldeak berreskuratzen. Hau dena gutxi ez balitz, Nafarroak XV. mendean, independentzia galdu arte, Agaramontarren eta Beaumontarren arteko gerra zibila sufritu zuen. Kalamitate eta gosealdi latzen ondorioz bidelapur, abere-lapur eta erbesteratuak gailendu ziren eta Gipuzkoa eta Nafarroako muga hauetako mendiak beren gordeleku bihurtu ziren. “Gaizkileen Muga” deitzen zioten. Orduan gaizkile eta lei-

nuen indarkeriaren kontra erregeak onartu zituen herri-anaitasun elkar-ateak edo “hermandadeak” merkatari-tza eta jendea defenditzeko asmoekin. Bortzirietako eta Goizuetako - Anizlarrea hermandadeko Kapitaina Lesakako Zabaletako jauna izan zen urte askoz.

Iberoko historiaren aztarna batzuk

Iberoko dorrearen jatorria bertako historian aztertu genezake. Nafarroako Karlos II erregetza luzearen garaikoa da (1349-1387). Anizlarrea eta Goizuetako lurraldeak Nafarroako Erregearen lurraldeak ziren (“de realengo”) eta Oinaz leinuko Lopez Diaz de Haro III.aren agindupean egon ziren 1270 urteraino. Ondoren bere etsaia zen Beltran Velez de Guevaran, Gebara leinuko jauntxoa eta “Merino mayor de Guipuzcoa” zenaren eskuetara pasa ziren 1376. urte arte. Hortik aurrera Orreaga eta Udaletxeen administraziopean mantendu ziren urte askoz.

Lur hauetan ere leinuen arteko istiluak bizitu ziren eta horrela, 1311 urtean, Nafarroako Mendialdeko merinoa, Larraun eta Araizko tropekin, Goizuetara etorri behar izan zuen Guevaratarrak zigortzera eta hauen etxea txikitzera lapurrak eta iheslariak izateagatik.

Idatzita dago 1389. urtean Ibero hondatuta geldirik zegoela eta dozena bat urteko bake garaia aprobetxatuaz Karlos III.ak “Miguel Ezquer de Lesaca”ri berritzeko eta martxan paratze-ko baimena eman ziola.

Gaztelaren eraso

Irailean, 1429. urtean, Gaztelako erregearen oinordekotza eztabaidan zegoen eta Gaztelak Nafarroari eraso zion Goizuetatik. Gertaera hau honela azaltzen da erdaraz idatzia: “... Como en el mes de septiembre del ayno 1329 en la entrada que los ypuzcoanos fizieron en nuestras dichas tierras de Goyçqueta et Anizlarrea ... en el dicho aynno quemaron y destruyeron la dicha villa de Goyçqueta con todos los trullares, cubas et pomada, arquas, armarios et con todos los otros osteillamientos que dentro seyan. Et que assi bien quemaron las ferrerías de Ibero et la ferrería llamada Necue con quatro o cinco casas cubiertas et con grant summa de mina et carbon et con todos los otros bienes muebles et ferramentos que tenian en las ferrerías de Cibolla, Alduncin, Hellama, Articuça, Ollaberria et Arrambide. Et que por causa de la dicha guerra no a benido persona alguna aqueillas son caidas, rompidas et esbaratadas las ruedas, las pressas et antiparas de aqueillas. Por la quoyal



causa son deuenidos en grant miseria et pobredat.” (F. Idoate).

Hondamena ez zen berehala bukatu eta 1440.ean beste hamarkada bateko erasoaldia hasi zen. Nafarroako gerra zibilean Gaztelak Printzearen alde jokatu zuen eta Aragoak Nafarroako erregea Juan II. ren alde. Goizuetarren zerga diruak bertan uzteko agindu zuen erregeak gotorleku eta dorrea berritu eta mantentzeko. Goizueta eta inguruko defentsa eta soldaduen kapitaina Zabaletarren Ochoa Lopiz zen 1451. urtean. Ochoa jauna Beaumondarren alde egon zen Vianako Printzea hil arte 1461. urtean, baina, hurrengo urtean Agaramontarren eta Juan II erregearen bandora pasatu zen behin betiko. Jauntxo honek Bortzirietako eta Goizuetako soldaduak hartu eta Zubietako Ozkorrotzeko gaztelua libratu zuen Beaumontarren eskutik 1462. urtean.

Iberori buruzko bestelako kontuak

XVI. mendetik aurrera kanoien eta fusilen aurka eraikuntza sendoagoak behar ziren eta dorre hauek garrantzi asko galdu zuten. Etxebizitzarako moldatu ez zirenak hondatu eta galdu egin ziren. Iberokoak biltegi, ukuilu edo lastategi bezala iraun du. Alduntzin jauregiko nagusiak batzuetan *“señor de Ibero”* bezala azaltzen dira eta testamen-

tuetan *“dueños de la torre y herrería de Ibero”* azaltzen dira nolabaiteko noblezia adierazteko.

Bukatzeko, eta jakin-mina duenarentzat, aipatuko ditut Iberorekin zer ikusia duten beste kontu batzuk.

Juamartizeneko fatxadako harri batean idatzia dago: *“INRI FILII DAVID MISERERE MEI / IN MANUS TUAS DNE COMENDO SPRTM MEUM / REDEMISTI ME DNE DEUS VENERATIS / JOAN MRZ DE IBERO AÑO 1671.”* (Dabiden seme, erruki zakizkit. Zure eskuetan Jauna, uzten dut nire espiritua. Askatuko nauzu, egiaren Jainkoa / Joan Mrz de Ibero. 1671 urtea).

Ardoaren merkataritza udaletxearen eskuetan egoten zen zergaren etekina lortzeko. Goizuetara Izarbeibartik (Valdeizarbe) ekartzen zen ardoa 1708. urtea baino lehenagotik eta kontrabandorik kontuan ez hartzeko zuzen-zuzen, bidea galdu gabe, ibili behar zen Iberotik Kusiñeneko bordara eta Arrianditik barna, bide nagusia utzi gabe, Zibolatik Goizuetara.

Iberoko ola 1860. urtean oraindik lanean zen, baina ez zuen iraun denbora askoz gehiago.

Udaletzeko liburuetan azaltzen da 1865. urtean, karlisten 2. gerra garaian, Goizuetarrek auzolanean Iberoko dorrea moldatu zutela.

Maiatzaren 14an 1873. urtean eta Karlisten 3. gerran pasarte hau gertatu

zen: Santa Kruz apaiza, gerrillari karlista, bi soldadu konpainiekin Goizuetara ailegatu zen goizeko hiru t´erditan. Bertan gelditu ziren bazkal ondoren arte. Leitzara abiatu eta Iberoko zubira iritsi zirenean, Santa Kruzekin zihonan Kruz de Otxoa diputatuaren zaldia izutu zen ... *“al subir lo hizo bien el caballo; pero al bajar, el jinete tiró algun tanto de las bridas, y el caballo que era suave de boca.. y cayeron caballo y caballero al agua que hacia alli un fuerte remanso. Gracias a eso no se mataron...”* Eta susto ederrarekin Iberoko baserri- ra joan, lehortu eta arropaz aldatu omen zen diputatu jauna.

Ibero eta bere lurrak Leitzako sute elkartek bereganatu zuen 1892. urtean eta Leitzako Udaletxeak 2012. urtean. 2014an Vianako Printzea Era-kundeak *Ondasun Inbentariatu* izendatu zuen.

Dorrea bere teilatu osoarekin 2005. urte arte mantendu zen.

Iberoko baserrian Felipe Apezetxea zena izan zen azkeneko biztanlea, bertan hil zen 2007. urtean.

Utzia eta desagertzeko zorian dago gaur Ibero. Egoera txar hau moldatzeko pausoak ematen ari dira. Iberoko ingurune osoak merezi du, luza gabe, moldaketa on bat. Amajina tokitan eduki nahiko lukete honelako ondare historiko eta kulturala. Mantendu eta zaintzea gure lana da.



ELKARRIZKETA

Aimar Zugarramurdiri

Aimar Zugarramurdi (1994) Argentinako La Plata hirian dugu azken hilabeteotan. Ikus dezagun zertan dabilen Goizuetatik hain urrun!

Zertara joan zinen Argentinara?

La Platara ikastera torri naiz, Universidad Nacional de La Platara. Han EHU-n ingenieritza elektronikoa ikasten dut ta beka baten bidez honera torzteko aukera izan dut, urte bete osoko. Abuztuk 4n aietu nitzan, goizutako fiestak galduz.. haik tripa miñak lenbiziko aste haitan! Hala re san bearra in duan gauzik hobena izan dela, bertako esperientzea izuarria izaten ai da ta.

Ikasketez gain, turismoa egiteko tarterik hartu al duzu?

Buenos Aires hiriburua ordu betera daukit ta noizen behin joten naiz, eun pasa turismo pixkot iñez. Gero hemengo uda aproextuz 2 hillabete libre euki nittun ta ordun aproextu nun gehina. Aurrena Mendozan izan nitzan, bertako Malbec bodegak bixitatu, hegoamerikako ardo tipo famosonatakoa. Ondoren Patagonian izan nitzan, San Carlos de Bariloche, Argentinan oañarte ikusitako herriik polittana, laku haundi batekin ta mendi tarten dona. Gero, bizin lenbiziko aldiz gabonak euldi onakin pasatzeko pla-

yara jon nitzan, oixe euberri berexik! Itxetik kanpo ta gaueko 9tan 30°C. Ta bukatzeko martxo hasieran Uruguayan izan nitzan, Montevideon, arrunt hiri politta! Ta oandikan falta zizkit pare bat leku izautzeko, Iguazu, Perito Moreno glaziarra...

Hemengo bisita batzuk ere izan dituzu...

Bai, abendun anaia torri zian bixitan ta bertan uda hasiera zela aproxtuz berekin biajatu nun. Urtarrillan berriz Loretxo ta bere laun bat, parranda batzuk elkarrekin iñez, jajaja, ta bukatzeko otsailen osaba Esteban,

Bariloche, Patagoniako lekuri bisitatuena da.



Malbec upategiko mahastiak, Mendoza herrian.



Osaba Estebanen bisita.



Bonbonera deitzen dioten Boca estadioa.

herrin karnabalak izan ta biek trixtura pixko batekin, biño halare ez giñun gaizki pasa. Eia san bixita nahikok euki ttut ta gañera onak, asike ezin keja-tu! Ta oan apiril bukaeran gurasok helduzkit baitare bixitan (eztakit noiz atetzen den rebixta, ordun oandik torri eziala patu dut jaja).

Zer du La Platak Goizuetak ez duena?

Uff, gauza asko... Nere afizio haundinetik hasita, futbola, primeran bi ekipo profesional izanta bi astetik behin futbol partidua ikustera jotenaiz, Boca Juniors bezelako ekipok ikusteko aukera izanta. Horretaz

gain, aktibitate asko itteko aukera: antzerkia, kalen bertan tangoa dantzatzeko gelditzen dia, nahi izanezkerokosten hiru lau aldiz parranda... Hemen aspertzen dena nahi dulako izaten da!

Zer da Goizuetatik gehien bota duzuna faltan?

Gehina botzen duana herriko giroa, izane 1000 biztanle re ezttun herri batetik 700.000 biztanle inguruko hiri batera tortzera salto haundia izan zen, han Donosti ya haundigia dela pentsatzen du asike hemen... Goizutako la-saitasuna re asko botzen da faltan, gauzez beti beldurrak ibili barra, lapurreta asko asko eoten dia ta, ta han



Boca Juniors taldeak irabazitako kopak.



Montevideo.



Eguberriak hondartzan.



Futbol zelaian.

berriz sekula burutik re pasa ez kaletik noala lapurtzeko aukera dola. Horretik beti gauzez taxin o grupo haundi xamarren ibiltzeko gomendatzen da.

Nolakoak dira argentinarrak?

Orokorren jende jatorra ta oso irekik. Nik suertea euki dut alleka ortatik, ezautu duan jende guzia beti launtzeko prest ta lenbiziko eunetikan hemengoan banintz bezela tratatu naute-lako, asike ezin kejatatu! Pega bat e badute ordea, bastante inpuntualak ta bate preokupazio gabekok, ta askotan

ateri izan naute nire onetik esperoneon bar izanta biño ezin orretik san jende txarra denik jajaja.

Ezagutzen al dute argentinarrak Euskal Herria? Nola ikusten gaituzte?

Denetikan do, batzuk sekula aittu gabe zutenak ta bestek berriz euskaldunari buruz asko dakitenak, bñ orokkeren ezautzen gittozte, asko gañera! Euskaldun familiko jende asko do ta euskal etxek baitare. Harrigarria iduittu ziana euskal kultura asko estimatzen dutela: euskal dantzak, euske-

raz e bertan ikasitako jendea torri berritan euskeraz zakiten argentinarrakin hitzein nunen ilusio ikiarria in zian, eia san enun olakoik espero!

Argentinako hoberena? Eta txarrena?

Asten behin itxen itten ttun asadok! Itxen parrilla er bat daukiu ta hemengo haragin kalidadeakin ezinhobek atetzen dia, asten behin behintzat itten du asado bat itxen denan arten. Txarrena gero ta pobre gehio ikusten di-la, preziok e eunetik eunera iotzen, inflazioa izuarria da. Buenos Airesen





Bienbebidos.



La Platako euskal etxean Goizuetako argazkia dago.



Greetingman "agurtzen ari den gizona" izeneko eskultura erraldoia, Montevideon (Uruguai).

edo beste edozein hiritan txabolismo asko ikusten da ta jende asko baitare kalen bizitzen, ez nun uste hain gaizki zonik herrialdea. Ta maten dunez gero ta ukerro dio asike...

Hartua al duzu bueltarako hegazkin txartela?

Ez oandikan ez, bñ amabirjiñatako behintzat or eoin naiz! Lengurtekok galdu nittun, aurtengok ya berriz ezin Bi urte segido galtzea asko iduitzen zit! jajajaja.



1916



Mende bat jo dugu atzera Xapoko ale honetan, 101 urte zehatzago esanda. 1916ko hiru kontuen berri emanen dizuegu; Lehenengo biek Pili Untxalok artxi-bo zokoetatik erreskatatuak; eta hirugarrena, iaz kultur taldeak eta Euskara Zerbitzuak argitaratutako “Goizueta. Historia, istorioak, lurra, jendea” izenburuko liburuxkatik hartutakoa.

“Amabirjinei” tarte berezia ematen diegu beti Xapoko atal honetan. Hala ere, sekula ez genuen hain atzera begiratzeko aukerarik eduki. Hasieran esan bezala, 1916ko festen programaren berri jasoko baituzue ondoren.

Abuztuaren 14tik 17ra ospatzen ziren festak orduan eta egitaraua ederki osatua azaltzen zen. Elkartasuneko lau zezen toreatu eta hiltzen zituzten egunero arratsaldeko lauretan. Carlos Recalde (a) Chiquilin zen urte hartako toreatzailea, eta Esparterillok eta Francisco Moralesek laguntzen zioten banderillero eta puntillero lanetan.

Buruhandi eta erraldoiak, su artifizialak, dianak eta mota ezberdineko

musika emanaldiak ere egunero izaten ziren. Baita eguneko festari bukaera emateko baliatzen zen plazako zine emanaldia ere. Goizueta eta Arano pilotarien arteko partida Amabirjin egunean jokatu zen. Ez dago esan beharrik elizkizunek ere garrantzi handia zutela urte haietako festetan. Amabirjin egunean esate baterako, “Eslava” meza ospatzen zen goizeko hamarretan. Orduan ere bazen korua herrian, baina behar bada oraingoa baino kaskarragoa izanen zen, inguruko herrietako hainbat abeslari elkartzten baitzituen Udalak egun horretan herriko taldea indartzeko.

Ura etxeetara

Hogeigarren mende hasierarako ura ekarri zen herriko plazara eta etxeetako hornidurarako erabiliko zen depositu ederra egina zegoen.

Baina etxe bakoitzera hoditeria eramateko 3000-4000 pezeta inguruko kostua izaki eta udalak horri aurre egiterik ez zuenez, arazoari nolabaiteko irtenbidea emanen zion Manuel

Ganboaren proposamen bat onartu zen Herriko Etxean, 1916ko abuztuaren 6ko osoko bilkuran. Juan Astibia zen alkate orduan.

Ganboak bere kontura hoditeria zabalduko zuen herrian eta ureztatzeko ahoak, “*bocariegoak*”, pasatu hainbat etxe aurretan, Urrutinean, Ezkurrenean, Manuelenean, Infantan... Zerbitzuaren truke, ura etxera sartzen zuen bakoitzak 1,5 pezeta ordainduko zizkion hilean Ganboa berari, eta Udaletxeak beste hainbeste, ureztatzeko aho bakoitzeko.

Zerbitzua bere gain hartu zezakeen herriak nahi zuenean, baina bi aldeetako perituek adostutako prezioa ordaindu beharko zuen horretarako.

Biu(re)tako zubia

Goizueta Leitzarekin (eta Iruñarekin, beraz) lotuko zuen errepidea eraikitzeko zailtasun handiak gainditu ziren, horien arten Biuretan zubia egin beharra.

Ez zuten gainera nolana hiko zubia eraiki. Jasotako zenbait dokumentazioaren arabera, garaiko erreferentzia bihurtu zen ingeniari eskolentzat. Aldizkari espezializatuetan ere eman zen gure zubiaren berri, hormigoi armatuaren erabileran kalkulu sistema iraultzailea erabili zelako batez ere.

Zubian bertan oraindik garbi ikusten den bezala, 1916an egin zen obra eta Alfonso Peña Boeuf izan zen proiektuaren ingeniaria.


Francoren Gobernuko Herri Lane-tako ministro izan zen gerora. “Revista de Obras Publicas” aldizkariak argitaratu zuenez, ingeniari eredutzat jo zitezkeen biaduktu edo zubi hau. Teknikoki esanez, parabola bikoitza duen arkuera eraiki zuten oinarri gisa, zubiari berari eta bertatik pasako zen kargari ongi eusteko. 42 metroko parabolak dira eta mota honetako bi arku ditu gainera. Zolarriaren euskarri gisa parabola-arkuak dituen lehenbiziko zubia izan zen Espainiar Estatu osoan.

Goizueta iruditan

XAPOko XVI. aldizkariko argazkiak Unai Samsók ekarri dizkigu. Goizueta-ra bizitzera etorria da Unai, eta dagoeneko ederki ezagutzen ditu herriko bazterrak, inguruak eta baita etxeak ere. Horiei erretratu dotoreak atera dizkie, batzuk txuri beltzean erakutsi dizkigu, besteak koloretan. Irudi bikain hauekin goza dezazuela!









iruditan



Goizuetako lehiaketa berria

Herriaren ezagutza zabaltzeko asmoz sortutako lehiaketa

Aurten herrian zerbait berria sortzeko gogoia zuten Kultur Taldeak eta Arnasguneen Taldeak eta lehiaketa bat antolatzea pentsatu dute. Lantalde bat sortu da eta Euskara Zerbitzuarekin batera hasiak dira lanean, lehiaketari forma ematen.

Lehiaketaren sorrera

Herriaren ezagutza zabaltzeko asmoa du lehiaketa honek: Goizuetako historia, parajeak, baserriak, auzoak, mendi eta errekek, tradizioa, ohiturak eta nola ez, hizkuntza; euskara jostaketarako baliatuz herriko esaerak, esamoldeak eta garai bateko hitzak jasoko ditu, besteak beste, lehiaketak. Herriatik jasotakoa berriz ere herriari ematea da helburua, galdutakoa berreskuratuz, ezagutaraziz eta zabalduz. Herriaren, kulturaren eta euskararen inguruko ezagutza eta dibulgazio lan polit bat egin nahi da egitasmo honen bitartez.

Lehiaketa azaroan izanen da

Azaro Kulturalaren baitan antolatuko da lehiaketa. Aurten azaroan ez dira hainbeste ekitaldi pilatuko. Horrek aukera ederra ematen du, asteburu batean hitzordu esanguratsu hau prestatzeko.

Leitzan eta Areson egina da antzeko lehiaketa

Goizuetara iritsiko den ikuskizun honek baditu aurrekariak gure eskualdean. Era honetako lehenbiziko lehiaketa Leitzan pentsatu eta egin zen, 2014ko abenduan. Hiru edizio izan ditu Leitzan, azkenekoa 2016ko azaroan egin zen. Izugarritzko arrakasta

lortu du, 3 edizioetan zine aretoa lepo betetzeraino. Aresoren txanda etorri zen segidan, 2016an helduentzako saio bat antolatu zuten eta ondoren haurrekin beste bat egin zuten.

Herritarrak animatu lehiakide izatera

Ikusleentzat ikuskizun bikaina da lehiaketa hau. Baina lehiaketak nahitaezkoa du lehiakideak izatea. XAPO aldizkaritik herritarrak animatu nahi ditugu emanaldi eder honetan parte hartzera, lehiakide gisara arituz.

Taldeakoko lehiaketa

Partaideek lagun babesa sentituko dute ez baita bakarka lehiatzekoa, taldean baizik. Hiruna pertsonako taldeak osatuko dira, eta 4 taldek parte hartuko dute. Guztira 12 lehiakide behar dira. Lehiaketan izena emateko aski da 3 lagun biltzea eta ongi pasatzeko gogoia eta animoa izatea. Utzi lotsak eta apuruak alde batera eta animatu, benetan esperientzia ederra izanen da-eta!

Galderak eta probak izanen dira

Ikuskizun dinamikoa izanen da. Hainbat galdera eta proba izanen ditu lehiaketak. Ia guztia herriari buruzkoa izanen da. Gauza batzuk erraz jakinen dituzue, baina beste hainbat datu aurretik jaso ditzakezue. Nahi dituzuen bideak erabili dokumentatzeko, aukerarako bat Goizuetako aldizkari berezia izan daiteke. Joan den abenduan herriko etxe guztietan banatu zen aldizkariari ari gara, "GOIZUETA, historia, istorioak, herria, jendea" bertan

herriari buruzko informazioa jaso dezakezue. Begiratu bat emateko oso aproposa izan daiteke. Dena den, bide hau ez da beharrezkoa, lagungarria baizik.

Ez dugu ahaztu behar umorea ere. Lehiaketa entretenigarria eta dibertigarria izanen da, ikusleek ederki pasako duzue, beraz zuek ere, herritarrak, animatu ikustera joateko, lehiaketa mundiala izanen da-eta!

Sari ederrak irabazteko aukera

Lehiaketan ongi pasatzeaz gain, herriari buruz zertxobait gehiago ikasita ateratzen bada publikoa helburua bete samar izanen da. Baina horretaz gain, partaideek sari ederrak irabazteko modua ere izanen dute. Aurreratuko dizuegu irabazleek 300€ko txekea eskuratu dezaketela. Eta horretaz gain, izanen da 12 lehiakideen artean banatzeko bestelako saririk ere.

Izen-ematea

Oraindik datak erabat zehaztu gabe badaude ere, iraila aldera izanen da lehiaketan izena emateko epea. Aski izanen da 3 laguneko taldea osatzea, eta izen-abizenak ematea. Honen inguruko informazio gehiago izanen duzue irailan. Horretarako kartelak aterako ditugu, herrian barrena zintzilikatu edota whatsapppe ere zabalduko dugu. Bertan jarriko du izena non eta noiz eman behar duzuen. Dena dela, ez utzi azkeneko momenturako eta iraila aurretik hasi taldeak pentsatzen!

Azaro kulturala 2016

2016ko azaro kulturala, puzzleko piezen modura elkar jositako ekitaldiz beteta aurkeztu zuen Kultur Taldeak. Era guztietako eta herritar guztientzako ekintzak antolatzearekin batera, gure kulturaren pixka bat sakontzeko aukera izan genuen.

Azaroak 4, ostirala

SAHARA KANTARI

Julen Apezetxea, Iñigo Asensio eta Dani de Ayalak Saharako kulturara eta herri honen egoerara hurbildu gintuzten. Errealitate gordin bat era xamurrean aurkeztu ziguten doinu artean.



Azaroak 5, larunbata

BIZI BARATZEA

Jakoba Errekondok "Bizi baratzea" liburua aurkeztu zuen. Bertan, baratzea lantzeko hainbat estrategia erakutsi zizkigun, gure lurraldean baratzak izan duen garrantziaz ohartarazi gintuen ... eta nola ez, bertaratutakoen galdera eta zalantzei erantzuteko tarte hartu zuen.

UMEENTZAKO JOKOAK

Arratsaldean txikienen txanda iritsi zen. Frontoia jolas eta froga ezberdinekin osatutako zirkuito bat bihurtu zuten gurasoek. Ondoren txokolatada izan zuten indarberritzeko.



Azaroak 6, igandea

JUBILATUEN EGUNA

Herriko helduenek ere euren egun propioa izaten dute Goizuetan. Mus eta truk txapelketa, pilota partiduak, bazkaria, dantzaldia...





Azaroak 11

AMETSEN LIBURUA

“Ametsen liburua”k, laurehundik gora preso eta erbesteari ametsak eta euskal artista ezagunen obrak bildu ditu liburu paregabe batean. Proiektu honen berri ere jakiteko aukera izan genuen Iñigo Elizegi eta Astero argitaletzeko kide baten eskutik.

MARGOLAN ERAKUSKETA

Era berean Iñigo Elizegik bere margolanen erakusketa jarri zuen asteburu osoan zehar Udaltzeko ganbaran. 100 herritar inguru gerturatu ginen artelan hauetaz gozatzera.

Azaroak 12

ARANOARREKIN TOPAKETA MAIRU-BARATZETAN

Aranoarrekin batera Urganatako Mairu-baratzetan topatu ginen gure arbasoen gehiago jakin nahian.

GOIZUETAKO HIZKERA

Oihana Lujanbiok ere gurea dugun hizkeraren inguruko bere tesia aurkeztu zigun. Bertan, Goizuetako hizkera belaunaldiz belaunaldi jasaten ari den aldatketak aurkeztu zizkigun. Era berean inguratu ginen herritarren artean kuriositate eta zalantzez hausnartzeko aukera ere izan genuen.



Azaroak 13

AMALURRAREN AHOTSAK

Euskal kulturaren emakumeek duten garrantzia ere ezin genuen atzean utzi. Hala, “Amalurraren ahotsak” dokumentala proiektatu zen. Bertan, emakume euskaldun eta kubatar baserritarrak, elikadura burujabetzaren protagonista dira. Elikadura subiranotasunaren aldeko apostua egin duten emakume eta asoziazioen esperientziak biltzen dira.



Azaroak 18

PINTXO KALEJIRA DANTZARIEKIN

Herriko dantza taldeak “plaza dantzak” ikastaroa burutu zuen egun ezberdinetan eta ekintza borobiltzeko pintxo kalejira egin zuten kaleak alaituz.



Azaroak 19

KONTSERBA IKASTAROA

Gure elikadura propioan ere burujabeago izateko kontserba ikastaro bat egin genuen eta partaideen arabera errepikatzeko modukoa da.

“GUTIK ZURA” DOKUMENTALA

Basoaren, zuraren eta euskal gizartearen arteko harremanak izan duten, gaur egun duten eta izango duten balioa gizarteratu nahi du dokumentalak lur honetako gizakiaren eta zuraren arteko harremana azalduz. Halakoa da gai honek herrian duen garrantzia ganbara herritarrez bete genuela!



Azaroak 25

“ESENTZIA” LIBURUAREN AURKEZPENA

Egunez aldatu behar izan bagenuen ere, Ander Olaizolaren azken liburuaren aurkezpenak herritar ugari bildu zituen. Oso esperientzia interesantea izan zen nola lan egiten duen ikastea eta ikuste.



Azaroak 26

NEKAZAL PRODUKTU, ARTISAU ETA GANADU EGUNA

Eguraldia lagun hunkigarria izan zen plazak hartu zuen itxura, nekazaritzako produktu bikainekin eta artisauen lan ikusgarriekin. Azien da ezberdinak ere bildu ziren frontoia betetz eta joaldunek ere doinu berezia jarri zioten egunari.



Nola ikusten dugu Goizuetako kultura?



2016. urtean egindako ekin-tza guztiak ekitaldien bilduma batean jaso ditugu herrian zer antolatzen den, nork antolatzen duen eta norengana iristen garen behatzeko.

Egindako lan honek Goizuetako kultur eskaintza baloratzea, honen inguruan hausnartzea eta pixkanaka hobetzea du helburu.

Ekitaldien bilduma hau saio ireki batean aurkeztu genuen eta www.goizueta.eus web orrian ere ikusgai dago. Aldi berean, zuen iritzi eta proposamenak jasotzeko kultur eskaintzaren inguruko inkesta ere burutu zen.

Oraingoan, Xapo aldizkaria erabili nahi dugu zuetariko bakoitzarengana iristeko eta bertan jasotako aipamenak helarazteko.

“Zer iruditzen zaizu Goizuetako eskaintza kulturala?” galdera erantzun

du ten gehienek positibotzat ikusten dute. Parte-hartze kopuruari oraindik garrantzi handia ematen diogu baina herri txikia garen heinean erantzuna ona dela deritzogu. Egutegia finkoak diren ekintzekin nahiko markatua daukagu eta zailtasunak ikusten dira kultur alor berriekin jendearengana iristeko.

“Zer eta nola hobetuko zenuke?” galdera esku artean hartzerakoan honako ideiak aipatu ziren: Ekintzak as-tean zehar ere egitea; kultur ekintzak kalera ateratzea eta urte osora zabal-tzea; herria kartelez bete beharrean panel informatiboak erabiltzea; kirol ekintza gehiago antolatzea; jendearen arteko harremana bultzatzea; arlo artistiko berriekin jendearengana hur-biltzea; gure kultur ondare propioa ezagutaraztea...

“Nolakoa da zure parte hartzea?” galderaren ondorio gisa herriko eragi-leek pisu handia dutela nabarmendu da. Herritarren implikazioa eta iniza-tiba faltan botatzen da.

Aipatzeko da ere, antolakuntzako bileretan gehiago handi bat emaku-mezkoa dela. Parte-hartzeari dagokio-nez, ia beti herritar berdinak mugitzen direnaren sentsazioa dago eta gazteak ere pasiboago ikusten dira.

“Nola erakarri parte hartzen ez duen hori?” galderaren harira espazio berriak bilatzeko (taberna, kalea...) eta herritarrak parte diren ekitaldiak antolatzeko beharra dago.

Azken finean nire, zure eta gure esku dago herrian nahi dugun kultura eraiki-tzea. Beraz, interesa pizten dizun edo-zein ekintza antolatu, bultzatu eta parte hartzeko gonbita luzatu nahi dizugu!!!



Goizuetan erabakitzera goaz!

E18, erabakitzera goaz... Azken hilabeteetan toki bat baino gehiagotan ikusi ditugun hitzak ditugu hauek. Baina bai al dakigu zehazki zer esan nahi duten hitzok? Zer ote da ba erabaki behar dugun hori?

Ibilbide luzea darama "Gure esku dago" ekimenak gure artean. Goierrin erabakitze eskubidearen alde hasitako mugimendu hartatik hasita, ezinezkoa zirudiena lortu genuen 2014ko ekainaren 8an. 150.000 lagunek Durango eta Iruñea lotu zituen 123 kilometroko

giza katea osatu genuen erabakitze eskubidearen alde, eta nola ez, han izan ginen goizuetarrok ere. 102. Kilometroan, Etxarren inguruan, bero ederra pasatu genuen, beroa baitzen tenperatura, baita giroa ere!

2015ean giroak bero jarraitu zuen. Urte hartan oihalak josten aritu ginen, borondateak ehuntzen, gure artean eskua ematen, hitz egiten, adosten, ulertzen. A zer emozio pila bildu genuen Euskal Herriko estadio desberdinetan! Nola ez, han ere goizuetarrak presente.

Anoetan nahiz Iruñeako zezen plazan, herri bat garela berretsi genuen. Hemen herri bat dagoela eta herri honek bere etorkizuna erabaki nahi duela. Horrela, gure oihalekin, hautetsontzi erraldoiak irudikatu genituen, noizbait herri honen etorkizunari buruz erabakiko genuenaren ilusioz. Pixkanaka-pixkanaka jende desberdina helburu baten alde elkartzen hasiak ginen, elkarrekin pausoak ematen. Helburua argia zen: gure herriaren etorkizunaren inguruan erabaki nahia.





Eta orain zer?

Une historikoa iritsi da. Duela 3 urte ilusioa zena, errealtate bihurtu da. Herri-herri galdeketa olatuak hasiak dira, eskuz-esku, botoz-boto, herritar desberdinak hasiak dira gure herriaren etorkizunaren inguruan erabakitzen. Etxarrin, Goierrin, Tolosan, Oiartzunen, Hernanin...

Goizuetan ere prest gaude eta erabakitzen goaz. Erroka handia dugu aurrean, ardura handia eskatzen duena. Baina seguru gaude ardura hau, merezi

duen errespetuz eta ilusioz hartuko dugula. Halako aukerak gutxitan gertatzen dira, hortaz, goazen olatua hartzera!

BATU ditzagun indarrak, ADOSTU dezagun bidea, aukeren artean ERABAKI dezagun askatasunez eta emaitza ERRESPETATU, elkarrekin AURRERA EGITEKO.

Nafarroan lehenbiziko aldiz gure etorkizunari buruz erabakitzen auzera izango dugula jabetuta, Mendialdeako herriak (Larraun-Lekunberri, Araitz-Betelu, Leitza, Areso, Arano eta

Goizuetan), Bortzirriak eta Basaburua-Imotz aitzindariak izango gara. Gure etorkizuna guk geuk erabaki nahi dugulako, izan gaitzen benetako protagonistak. Gure herria eraikitzen goaz, zu, ni; gu. Gure esku dago. Beraz, ekainaren 18an bozkatu:

Nahi al duzu Nafarroako herritarrok gure etorkizun politikoa modu askean erabakitzea?

Zure erantzuna baiezkoa bada....

Nahi al duzu Euskal Herri libre bateko herritarra izan?



EZETZ ASMATU

Xaporen zenbaki honetako “Ezetz asmatu” ataleko 3 argazkietan ume asko ikusiko dituzue. Umeak ziren argazkia egin zen momentuan, alegia, baina urte batzuk pasa dira eta aldatuxeak ditugu gehienak. Beste 3 argazkietan herriko gazte eta helduak. Batzuk oraindik aisa ezagutzeko moduan, bai eta besteak ez hainbeste? Tira, ea denak asmatzea lortzen duzuen, edo gehienak gutxienez.



Lexotiren Goizuetako egonaldia

Lexoti arrunt ezaguna zen Goizuetan, askotan kantatu baitzuen hemen. Besteak beste, San Agustin eguneko Artikutzako festan berak eta Joxe Joakin Mitxelena adiskide eta herrikideak osatu ohi zuten bertsolari bikotea urtero 1970-1980ko hamarkadetan.

Jose Luis Lekuona Garaiar (Lexoti) 1925ean jaio zen Oiartzungo Ergoien auzoko Maixta Borda baserrian eta 2006ko garagarrilaren 19an hil zen Hernaniko Fagollaga auzoko bere arrebaren etxean.

Bere garaiko bertsolari onenekin kantatu zuen Lexotik herriz herri, Uztapide, Baserri edo Lazkao Txikiarekin, esate baterako. 47 urterekin Oiartzunen kale garbitzaile hasi zen arte ez zuen lan finkorik izan inoiz eta horrek alper fama handia eman zion. Askotan dirurik gabe ere aurkitzen omen zen eta horren ondorioz ezaguna da, batez ere musularien artean, bere pasarte hau: Musean ari omen ziren lau lagun, Lexoti eta Uztapide tartean. Uztapidek haundira “nere etxeko tei-

latuan teilak hainbeste tanto enbido” jo omen zuen. Lexotik, “tira”. Eta ondoren honek ttikira: “Nere etxean mila pezetakoak hainbeste tanto enbido” eta Uztapidek bere lagunari Lexotigatik: “Honek paso esan nahi zien”.

1959an 10 hilabete igaro omen zituen Lexotik Goizuetan bere osaba baten idi parearekin itzai, herriko hainbat obretarako menditik egur garraio. Dena den, Maritxu tabernan denbora gehiago egiten omen zuen idien aurrean baino. Bibianorekin, al-baiteroarekin edo medikuarekin joan eta txakoli edaten edo eta “Xalto”rekin bertsoetan. Gure eskuetara ailegatu den eta autore ezezaguna duen istoritxoak dioenez, Bar Maritxun bertan egondu zen Lexoti apopilo hilabete horietan, baina bertsoen protagonista “Juananeko Maritxu” da, berari eskerrak emateko idatzi baitzuten. Gure ikerketen arabera, 1959an Juanenean ez zen Maritxurik, beraz zalantza horrekin gelditu arren berdin gozatu liteke bertso dotore eta fresko hauetaz.



(1) Ni Goizueta'n azaldu nitzan gizon eskaxan moduan osaba zanan idiyarekin egun batez nitzan juan; ta antxe bildu egin nitzan ni tabernaren inguruan Juanaeneko Maritxu ere nik asko maitatzen nuan.

(2) Etxe aretan ni apopilo, batere ez daukat penik, seme bezela artu niñuen egun batian joanik; ni mantentzeko etzuen falta, abildade ta kemenik neri're etzait iruditutzen nere ama ez nuenik.

(3) Egun batian aldegitoko izandu nuen suertia ark esan zidan: “Etxian bada gizon on baten faltia; zuk emendikan aldegitia da neretzako kaltia, ta berriz ere noiznai etorri, zabalik dago atia”.

(4) Andre jatorra ona zan ura, txit Lexotintzako jaio, beti lanian ibillitzen zan kurajetsu eta iaio; neri kalterik etzidan egin jaio eta oraindaño, mantenu ona ematen ziran, gutxi kobratzen zun baño.

(5) Gizona ondo mantendutzeko bazun abilidadia, borondateko andria zala, nik esango det neria; egun batean ikasi nuen etxe artako bidia, nik naiago nuke Goizueta'n Maritxu asko balia.

(6) Maritxu ona nik maitatzen dut guztizko borondatian, egun batian ezagututa ez da neretzat kaltian; mundu onetan izango gera nork daki zenbat urtian, ni zuretzako ez naiz aztuko arnasa detan artian.

HITZAK SOBERAN DAUDE

Gaur ere egunsentia iritsi da. Iratzarri naizenean, hasperen egin eta besoa luzatuz bezala buelta eman dut, zure gainera jausiko nintzelakoan. Jaso dudan erantzuna, almohadaren hoztasuna izan da, besoarekin mesanotxeko lanpara lurrera bota eta mila pusketan hausten nuen bitartean. Birao batzuk murmuratu ditut zu nire ondoan ez zeundelako. Noiz joan zara? Gaur nirekin egin duzu lo, ezta? Berriro ere ametsetan ari ote nintzen? Seguru. Zu baitzara nire ametsen ardatza, nire biziaren ardatza.

Ez, gaurkoan ez da ametsa izan, hemen egon zara. Maindireei oraindik zure usaina darie. Ummmh! Zure perfumea dastatze hutsarekin aztoratu egiten naiz. Gelan aroma desberdinek sortzen duten mikroklima zoragarria da, perfumea, izerdi usaina, zure zukuena...bart egindakoak ekartzen dizkit gogora; zuk erran bezala, perfumearen ibilbidea listuz jarraitu behar izan dut, lepotik hasita. Gustuko duzu hori, panpoxa! nire mingainari askatasun osoa eman ez eta nire usaimen finaren poderioz listuzko soinekoa egin dizut zurea kentzen nizun heinean. Hobeto zaude nik diseinatutakoarekin. Eta zu, ispiluari begira, ni bero-bero jarritz. Mimosa! gustatzen zait zuk hasperentxo horiek egitea, titiburuetan, karreterako errotondak bailiran galduarena egiten dudanean, nire ahoarekin biraka. Nere behatzak urrezkoak direla diozu, gorputz guztia laztantzen dizudanean, zukan halako hotzikara gozo bat eragiten dutelako, bitartean nire ahoak bidea aurkitu duela dirudi, mendian behera, eta zu geldirik, baina gustura. Segi, segi! hitz magikoak. Zure sabelean muxuak eman ez, gerriko neurriak hartzen ditut mingainarekin, eskuak izter barruetan murgiltzen direlarik. Xuabe-xuabe zaude, goxo-goxo. Zure tatuaiak trafiko seinale baten lanak eginez basorako norabidea erakutsi dit, eta horra noa nire intentzio lizunenekin. Ahoarekin nabaritu dut ba-



soaren hasiera, eta ez hozteko arnas bero-ko haizeaz zuhaitzak dantzan jarri ditut. Gustuko duzu, nabaria da, ezinegona hasi da zutaz jabetzen. Eskuak ere mugimendu mantso eta neurtuekin, bare-bare izterretan gora doaz, zukan kilima etengabe bat eraginez. Bakoitza bere aldetik ari da, ahoa, mingaina gidari basoan berrera eta eskuak, behatzak brujulatatz erabiliz. Azkenean biak kobazulo baten aurrean topatu arte. Ilun eta heze dago eta badirudi goiko partean halako tinbre bat dagoela. Mingainarekin miazkatu eta zure onarpenera jaso dut. Gustukoa duzu, nire mingainak zure tinbrea miazkatzea, behatzak kobazuloa esploratzen duten bitartean. Paretak gero eta hezeagoak daude eta lurrikara txiki bat sumatzen da. Gero eta gehiago mugitzen zara, kexu bezala, baina ez gelditzeko erregutzen didazu. Mingaina eta behatzak martxan daude, lana bukatu arte aritzeko agindua jaso dute eta intentzio osoarekin miazkatu eta laztantzen, goxo-goxo aurrean azkarrago gero. Borobilak eginez, ummh! Gora eta behera, barrura eta kanpora... segi, segi...gazi-gozoa, gaur egungo sukaldaritza modernoa bezala, ...bai, hor, hor...azkar, azkar...aaaaaahhh!!!

Zure masailak gorrixkak bihurtu dira bat-batean. Ez duzu hitzik erran, baina

begirada konplize horrek dena adierazten du. Lasaitu zara, arnasa berreskuratu eta muxu goxo bat pausatu duzu nire ezpainetan, eskerrak eman bezala. Aurpegia bero-bero duzu, hala ere, ez nire hankartea bezainbat. Zu ere konturatu zara eta ni horrela ikusita zerbait egitea otu zaizu.

Zure sugandila-mingainaz lepoa zeharkatu didazu, badakizu nola jokatu. Hotzikara orokor batek abisatu nau beherantz zoazela, titiak, sabela, besoak, ...nik ere zure trajea bezalakoa izan arte. Zure esku abilak nire izterretan gora ari dira, emeki-emeki. Gero eta gogorragoa sentitzen dut nire zakila, zure arnasa hurbiltzen na-

baritzean. Behatzekin barrabilak ukitzean arnasestuka hasi naiz eta zuk une hori aprobetxatu duzu mingainarekin zakilburutik ihesi bezala doan tantatxoaz zurrupatzeko. Ummmh! Jadanik ez dut egun osoan jasaten dudako izterreko mina nabaritzen. Astiro mesedez! Ze sentsazio betegarria, nire pentsamendu bideratzailea ahoan sartu duzuean...dastatzen ari zara, inoiz halakorik probatu ez bazenu bezala, urtu egingo den helatua bezala, amaitzerik nahi ez bazenu bezala...ze gozarena! Ezin izango dut askoz gehiago irauten, sumendia erupzioan jar daiteke edozein unetan. Badakizu hori eta bat-batean geratu eta nire gainean eseri zara. Oso bustiak gaude eta barneratze garbia izan da. Zu ere puntuan zaude eta gora eta behera zaldikatzen hasi zara, astiro baina geldidunetik gabe. Bai, segi aurrera, horrela, gora, behera, azkar...banoa, banoa,.....aahhhh!

Ederra izan da gaurkoa, hala ere, ez dakit zergatik joan zaren. Hitzik egin gabe. Beharbada hobe da horrela. Aurpegia garbitu eta ispiluan errealtatea ikusi dut. Lanera joan beharra. Zilizioa jantzi dut eguneroko lez. Sotana hau ere aldatu beharko nuke, zahartu xamarra dago. Berandu nabil, eta oraindik ez dut gaurko sermoia prestatu...

Zein da Goizuetako zure leku edo txokoik gustokona?



Koro Etxeberria

GOIKO ITTURRI



Jose Luix Arozena

PORROSTA



Juantxo Apezetxea

UNALBIDEKO BORDA



Arantxa Ansa

IBERO



Leire Alsua

IBERO



Xebeino Apezetxea

Lehenago basureroko gailkaldeko ttontorra.



Iñaki Loiarte

ARRAMALTA



Arantxa Loiarte

Itzai Haunditik Montafrio aldeko parajea. Olajaundiko gaina. Bertatik izuarri ongi ikusten da inguru guzia.



Bidetxo Uitzu

KAPELORRIKO BORDA



Jabier Apezetxea

MANDUI



ZURE TXANDA

MARI JOSE ZABALA



Zenbat urte bizi izan zara herrian?

6 urterekin Frantziara joan nintzen eta 12kin bueltatu, eta 17 urterekin joan nintzen baserrira bizitzera.

Noiz erabaki zenuen baserrian bizitzera?

Ezkontzeko garaian.

Zure eguneroko lana nolakoa da?

Goizean 5:30ean jeikitzen naiz, sotoko lanekin hasi, seme zaharrena esnatu eta herrira jeisten dut Leitзара joateko. Segidan etxeko lanak egiten ditut. 2. semea esnatu eta transportea dator etxera. Ondoren 2 tikiak moldatu eta transporteak eramaten ditu ikastetxera. Nik azinda lanekin segitzen dut. Urtaroaren arabera dira lanak: azindak etxean baditut gaztak egiten ditut, azpiak garbitu eta belarra eman. Arratsaldean umeekin egoteko denbora hartzen dut eta gau aldera elkarrekin egiten ditugu azinda lanak, azpiak garbitu, belarra eman eta azkenik afaldu, bainatu, telebista pixkot ikusi eta lotara.

Asko aldatu al da zure bizimodua geroztik?

Bai, dena aldatu zait.

Ze irabazi duzu aldaketarekin?

Ikasi dut, gai naizela autosufizientea izaten. Berdura jaten duguna, gure baratzakoa da, haragia guk hazitako animalietatik jasotzen dugu, ogia egiten ikasi dut, gailetak, esnekiak eta hainbat gauza gehiago egiteko gai naiz eta pozik nago.

Eta ze galdu?

Galdu!! Deus ez!!

Bueltatuko al zinateke lehengo bizimodura? Zergatik?

Ez nitzake bueltatuko, gustora bizi naiz baserrian!

Zure baserritar bizimoduan, ze eskatuko zenuke hobetzeko?

Baserrri produktua baloratuz! esfortzu eta mimo handiarekin egindako produktua dira eta diru pixkot ateratzeko bidea!

Zure seme- alabentzat ze nahiko zenuke, herriko bizimodua edo baserrikoa? Zergatik?

Beraiek aukeratzeko dutenarekin gustora geldituko naiz, basea badaukite! hortik aurrera beraien esku!

Zein asmo dituzu etorkizunera begira?

Orain bezala segitzea eta ahal bada hobetu! Baserriko produktua baloratuko balitz, gehiago egiteko bidea izango nuke!

MERTXE UITZI



Zenbat urte bizi izan zara baserrian?

10 urte. Lanera joan behar izan nuen eta.....

Noiz erabaki zenuen herrian bizitzera?

Ezkondu nintzenean.

Zure eguneroko lana nolakoa da?

Etxeko lanak egin eta baserrira bueltatzen naiz, gehien bat, baratzera! Horrek relajatzen nau!

Asko aldatu al da zure bizimodua geroztik?

Bai asko!! Pentsa!, garai hartan baserrian ez genuen ez komonik ez dutzarik! Herrian beste modu batera bizitzen da!

Ze irabazi duzu aldaketarekin?

Lagun arteko giroa irabazi dut.

Eta ze galdu?

Ama lurrarekin kontaktua asko galtzen da.

Bueltatuko al zinateke lehengo bizimodura? Zergatik?

Baaaiiii. Lurrarekin lotura beharra dudalako, baina oraingo aurrerapenekin!

Zure herritar bizimoduan, ze eskatuko zenuke hobetzeko?

Ez nuke ezer aldatuko, dagoen bezala, gustora bizi naiz.

Zure alabarentzat, ze nahiko zenuke, herriko bizimodua edo baserrikoa? Zergatik?

Berak aukeratzea, baina bertan gelditzea eta dagoen tokian, gustora bizitzera.

Zein asmo dituzu etorkizunera begira?

Holaxe segitzera!